

# Autodetermi- naziotik at, bakerik ez

## TXILLARDEGI

Gauza bat da bakea; beste gauza bat, berriz, kakotx arteko "bakea", "ordenu publikoa" alegia.

Era berean, gauza bat da goikoen eta zapaltzaileen bortizkeria; eta beste gauza desberdin bat, behekoen eta zapalduen borroka harmatua.

Makina bat aldiz errepikatu dira zahazketa horiek; eta oraino beste hamaika bider ere errepikatu beharko bide dira.

G. Mugika argiro azaltzen du bere artikuluan: "En realidad observamos un enfrentamiento entre dos tipos de violencia. Pero, más profundamente, y en la raíz, están enfrentados dos tipos de paz. Hay un enfrentamiento entre violencia y violencia, porque existe un choque frontal entre paz y paz". Dударik gabe; ados gara.

"No es lo mismo pensar la paz desde el poder absoluto que desde el no-poder, pensarla desde arriba que desde abajo, con mente de dominador que con mente y experiencia de dominado. No es idéntica la violencia del Estado que la de un pueblo sometido. No es posible dar una valoración y sentido unívocos a la violencia del opresor que a la del oprimido". Berririo ere: ados gara.

Mugika-ren pasarte horietan, eta berdin beste askotan, bai Euskal Herrian eta bai Euskal Herritik kanpora, goitik onarrerazi zaigun "bakea"ren gezurra salatzen da garbiki eta egokiro; gaurko gizarte mota hau zanpatzailea delako. Nahiz ibilki izkutatzen badu ere zapalketa hori.

Zanpaketa horren ondorioak, espainiar Estatuari dagokionez, askoz ere nabarmenago agertzen dira Euskal

Herrian, kanpoaldean baino. Eta galdera hau da: zergatik hori? Mugikak badaki, noski; baina, zoritxarrez, ez digu esaten.

Gogoan har ditzagun, adibidez, batere abertzaleen aldeko ez den A. Garcia Ronda PSOE-tarraren zifra batzu (vid. 'Cuadernos de Alzate', 2.zb., 1985; 88. orr.): 1968 - 1983 urteetan barrena, ETA-ri dagozkio gertatutako atentatu guztien  $\circ/o$  75,36-a.

Hots, euskaldunok  $\circ/o$  8 besterik ez gara espainiar Estatuaren barruan. Borroka harmatua, beraz, 35 aldiz azkar-kiago gertatzen da euskaldunen artean ( $- 0,7536 \cdot 0,92 / 0,2464 \cdot 0,08$ ) gainerako herrietan baino. Zergatik ote? Espainiarrek baino 35 aldiz maiteago bide dugu guk borroka harmatua!.

Halaz ere zapalketa 'orokorra', esan dezagun, denek jasaten dute; eta ez guk bakarrik. Salamancan Murcian edo Toledon, adibidez, egia da ondoko hau: "De hecho seguridad y orden público vienen siendo las grandes coartadas de los regímenes 'modernos' para defender, en nombre de la paz, los intereses hegemónicos del capital". Egia borobila. Baina aipatutako hiru probintzia horietan Euskal Herrian baino askoz ahulago (35 aldiz ahulago) da "terrorismoa". Hango zapalkuntza eta hemen duguna, hortaz, ez dira maila berekoak. Bestela hau postulatu behar genuke: euskal gene-etan dabagoela bortxaren aldeko osagairen bat.

Erantzuna, ordea, begi bistan dago: Euskal Herriko arazoaren muinean nazio-zapalketa dago, batera legez, legetik at eta interpolkeriaz burutua, Eta hori erantzunez mugimendu abertzale herrikoia eta hazkorra sortu delako.

35 faktore hori behar da azpimarratu, beraz. Gure egoera desberdina da. Gure herria desberdina da. Baina goitik ezartzen zaigun legetasuna, "espainar" guztien berdintasunean funtsatzen da.

- "En el núcleo de la cuestión vasca está la opresión-nacional, opresión, al mismo tiempo, legal, para-legal e interpolarizada. Como respuesta a ella, se encuentra un movimiento abertzale popular y creciente".

Horixe da kakoa. Eta lehenengo lerroan hori jarriko ez deno, nagusi dirauke alienazioak.

Hori dela-ta, Mugikaren artikulua gure arazoa funtsean izkutatzen ote duen pentsa daiteke; nazio-arazoa balizatu eta nahasi egiten baitu.

- "Nuestro pueblo es un pueblo distinto; pero la legalidad que se nos impone, se basa en la igualdad de todos los 'españoles'. Esa en la cuestión, y mientras no se haga resaltar, permanecerá la alienación".
- "Este es el eje del problema: nuestro pueblo pide que se acabe el imperialismo, no el centralismo, y mantiene una dura lucha por la libertad de su patria. En este contexto, la autodeterminación es 'conditio sine qua non' para la paz; condición previa para que la justicia, la democracia y la paz sean posibles en Euskal Herria".

Azter ditzagun, adibidez, argigarriztat proposatzen dizkigun hamabi binomioak. Alde batean bakea aurkeztzen zaigu; eta bestetik, ilaran hauek: 1/ "parados"; 2/ "no autodeterminación"; 3/ "tortura"; 4/ "detenciones indiscriminadas"; 5/ "insolidaridad"; 6/ "escalada armamentista"; 7/ "enriquecimiento creciente de los más ricos"; 8/ "pauperización creciente de los más pobres"; 9/ "desmovilización popular"; 10/ "moral de interés parcial"; 11/ "desmoralización de cuerpo social"; eta 12/ "pérdida de esperanza".

Hots, Euskal Herriko egoera latzaren kakoa nazio-arazoa da. Espainiar inperialismoaren kontrako ezinbestezko urratsa, autodeterminazioa da. Baina Mugikaren lerrokada horretan bigarren puntuan baizik ez da ageri, beste eskabide bat balitz bezala. Frantsesez hau esango lukete: "on dirait qu'on essaie de noyer le poisson"...

Idazlearen herabetasun hori, hitz batez, egoeraren adierazgarria iruditzen zaigu. Mugika hori gure aldekoa baita, izan. Oraindik ere abertzaleok ez gara egia argi-eta-garbi aitortzen ausartzen. Beti ere "kontestu" zabal batean mintzatu behar bide dugu; gure pentsamoldea medarra eta heresia ez dela erakusteko...

Baina manifestazio harrigarriak gureak dira, presoak gureak dira, deserrituak gureak dira, ekintza harmatuak gureak dira, estraditatuak gureak dira, deportazioan hiltzen direnak gureak dira, torturapean hildakoak gureak dira; eta "sistemak" Estatu osoan irentsi ez duen giza-multzo bakarra ezker abertzalea da.

Ardatza, beraz, hau da: gure herriak inperialismoaren bukaera eskatzen du (eta ez "centralismo" delakoarena),

eta aberriaren askatasunaren alde darama borroka gogor hau. Esan dezagun argi-eta-garbi eta kolonizatuen lotsa txorrik gabe: Kakoa abertzaletasuna da.

"Para Euskal Herria - irakur dezagun - un modelo que reconozca explícitamente el derecho a la autodeterminación de los pueblos es más portador de paz (azpimarraketa gurea) que el que no lo haga". Zer adierazi nahi duen somatzen badugu ere, erratzera eraman dezake esaldi horrek. Euskal Herrian autodeterminazioaren gainean eraiki behar

baita bakea. Autodeterminaziotik at, inperialismoa dago nagusi; eta inperialismoaren barruan ez dago demokraziarik eta ez zuzentzarik: ez hemen eta ez inon.

"Más portador" ez, beraz; demokraziak, justiziak, eta ondoriobidezko bakeaz hitz egin ahal izateko, autodeterminazioaren eskubidearen aitortpen garbia 'conditio sine qua non' baizik.

Bide beretik Mugikak: "para nosotros la autodeterminación es uno de los nombres de la paz".

Brauki erantzungo dugu: ez. Eta erdaraz eginez: la autodeterminación es la condición previa para que la justicia, la democracia y la paz sean posibles en Euskal Herria. Ez da, hitz batez, bakearen 'izen bat', ezinbestezko baldintza baizik.

Hau garbiki esango ez deno, ilunpean egongo da gure herria, eta ilunpean helburu nagusia: askatasun politikoa.